

D. L. URKIZU

Errosarioko bertsoen egillea, durangarra, alkatea.

Durango uriari argitasun barria etorri jako oraintsu: uri onetako seme entsutetsu batena ei da iñoz euskeraz idatzi dan prosazko zatirik luzeena. Oraintsurarte or egon da lo, antxiñako paper zarren artean galduta, arik eta aleman batek illunpetik atera ta argitara ekarri dauan arte. Antziñako gauzen eta gizonen barri billa dabilzan jakitun eta aztertzaile bati, Ba-taillon frantsesari omenaldizko liburu bat eskiñi nai izan deuse, eta an agertu dau aleman orrek euskerazko testo zar ori, 1537koa, Etxepareren liburu ospetsua baiño zortzi urte lenago idatzia. Mexikoko lenengo Gotzain izan zan Aita Zumarraga frantsizkotarrarena da, bere senide bati Mexikotik euskeraz egin eutsan karta baten datorrena. Durangoko semea dogu Zumarraga Gotzaiña, eta an Durangon umetan ikasi eban euskerea daukagu or, XVgarren gizaldiko euskera zarra, bizi bizi-rik. Ez da gauza utsa. Tovar idazle eta irakasle andiak emon dau gure artean alemanak aurkitutako karta orren barri eta laster emongo ei deusku guri be euskerazko puska zar ori irakurteko erea. Orain artean, esaera labur bat edo beste, puska txikiak, besterik ez dogu euki euskera zarrekorik. Emendik aurrera zeozer osoagorik ezagutzeko aukerea izango ei dogu. Eta Bizkaiko euskera zarrean.